



EUSKALGINTZAREN
KONTSEILUA

2021

www.kontseilua.eus

URTEKO IRAKURKETA
ETA ONDORIOAK

Izenburua: Kontseiluaren urteko irakurketa eta ondorioak 2021

Egilea: Euskalgintzaren Kontseilua

Argitalpen-data: 2021eko abenduaren 30a

Ale kopurua: Argitalpen digitala www.kontseilua.eus atarian eskuragarri

1	SARRERA	04
2	2021 URTEA: ZENBAIT ZERTZELADA - Politikaren hiru zutabeak - Azpimarragarriak	06
3	ESKUHARTZEAK: BOTERE JUDIZIALAREN OLDARRALDIA	12
4	HERRI GOGOA - Plazak berreskuratuz - Batuz Aldatu	14
5	ONDORIOAK	18



SARRERA



Kontseiluaren 2021eko Batzar Nagusia, Bilbo.

2020ko abenduaren 15ean, Donostiako Aquariumean, Hizkuntza Politiketan Eragiteko Adostasun Sozialak eraikitzeko prozesuari ekingo ziola esan zuen Euskalgintzaren Kontseiluak. Urte gogorra bizitzen ari ginen arren, sinetsita geunden bazela garaia lankidetzeta eta adostasun berrien bidez urratsak egiteko. Are gehiago, “bagoaz!” esan genuen bertaratu ziren eragileen ordezkarien aurrean.

Hori guztia, gainera, Euskalgintzaren Kontseiluaren logo eta izen berritua aurkezten ari ginela aipatu genuen. Izan ere, urrats berri garrantzitsua egingo bagenuen, beharrezkoa zen berritasun hori gure markan ere erakustea.

Urtea joan da ordutik, eta esan behar dugu lehen urratsa egitea lortu dugula. Zenbait hilabetetan jardun dugu mintegiak antolatzen, alde biko bilerak egiten, ehundik gora ekarpen jasotzen, ekarpen horiek antolatzen, testua zuzentzen... Lan handia, baina emaitza ikaragarria. Azken urteotan horrenbestetan eskatzen genuen adostasunaren lehen irudia erakutsi genuen Kursaal jauregian ekainaren 19an. Ehundik gora eragilerekin batera jorratutako hizkuntza-politiketan eragiteko adostasun sozialaren edukia aurkeztu genuen publikoki.

Eta, prozesuan zehar ohartu ginen eragileek ere horrelako zerbaiten beharra bazutela. Alegia, euskarren afera erantzukizun partekatua dela, eta guztiok badugula zer esan eta zer egin adierazi ziguten eragileek. Hartara, adostasun sozial hori aurkezteaz gain,

Kontseiluak lan egiteko modu berri bati ekiteko aukerak zeudela ondorioztatu zuen. Horrela, aurrera begirako estrategiari izena jarri, eta horren garapenari ekin zion: Batuz Aldatu.

Hona ekarri nahiko nuke dokumentuak jasotzen duen esaldi esanguratsu bat, hain zuzen ere, Batuz Aldatu filosofia aski ongi zer den azaltzeko: *gizarte-eragileok erantzukizunez jokatu behar dugu. Norbere esparru eta harreman sareetatik jardunez eta eraginez, denon eskubideak bermatzeko urratsak egin behar ditugu. Gizarte berdinzaleago eta kohesionatuagoa lortzeko giltzarria baita.*

Izan ere, hurrengo orrietan jasotakoek ondorio horretara garamatzate. Orain da unea hizkuntza-politikak birpentsatu eta jauzia egiteko, eta horretarako eragileok batu egin behar gara, gure indarrak batu behar ditugu, baldin eta etorkizuna aldatuko badugu. Eta, horretan erabateko adostasuna ikusi dugu, garaia da etorkizuna aldatzeko.

Paul Bilbao Sarria
Idazkari nagusia



2

**2021 | URTEA:
ZENBAIT
ZERTZELADA**

Politikaren hiru zutabeak

Hizkuntza-politika egokia hiru zutabe sendoren gainean eraiki behar da: corpus juridikoa edo araugintza, plangintzak eta baliabideak. Hartara, 2021ean hiru zutabe horietan izan diren gorabeherak laburtuko ditugu lehenik eta behin.

Espainiako Estatuko araudiari dagokionez, larria izan da Gobernuak Eskubide Digitalen Gutunarekin egingakoa. Hizkuntza gutxituen esparruan, Euskalgintzaren Kontseiluak alegazio berezituak prestatu zituen, Elhuyar eta PUNTUEUS erakundeekin batera. Aipatu alegazioak galizieraren eta katalanaren aldeko eragileek ere bere egin zituzten. Espainiako Gobernuak uztailaren aurkeztu zuen Eskubide Digitalen Gutunaren azken bertsioa. Bertan, eta berezko hizkuntza gutxituei buruz, ez zen inolako aipu berririk jaso. Gobernuak ez zuen inolako ekarpenik kontuan hartu, eta lehen zirriborroa bezain diskriminatzailea izan zen aurkeztutako behin betiko bertsioa. Hizkuntzen auzia eta hizkuntza-eskubideak alboratzea erabaki zuen, bai prozeduretan bai edukietan ere.

Bestalde, aipatu behar dugu 2021eko martxoan Espainiako Kongresuan izandako eztabaida, aragoieraren, asturieraren, galizieraren, katalanaren eta euskararen aldeko gizarte eragileek sustatuta, hain zuen ere, 2020ko otsailaren alderdiei aurkeztutako *Hizkuntza-aniztasuna: askatasuna, berdintasuna eta demokrazia* dokumentuan oinarritutako Legez Besteko Proposamena.

Legez Besteko Proposamenak bost puntu jaso arren, Kongresuak hiru besterik ez zituen onartu: estatus ofiziala ez duten hizkuntzei buruzkoa, eremu linguistiko

bereko lurraldeen arteko hizkuntzen administrazio-erabilera eta hedabideen harrerari buruzkoa eta, azkenik, benetako errespetua bermatzeari buruzko konpromisoa. Eragileon hasierako asmoa anbizio handiagoko izan arren, positiboki baloratu genuen, hizkuntzen eztabaida parametro egokiagotara eraman genuelako.

Ezin aipatu gabe utzi Ikus-entzunezkoen Lege Orokorren tramitazioa. Halere, legearen edukia eta prozesua sakonago aztertuko dira aurrerago.

Azkenik, atal honetan sartu nahiko genuke Europako Kontseiluak Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunari buruz martxoan argitaratutako epe-erdiko ebaluazioa. Izan ere, Adituen Batzordeak Euskalgintzaren Kontseiluak helarazitako kexak bere egin zituen, eta berehala bete beharreko gomendioak bi eremutan egin zizkion Gobernuari: justizia administrazioan eta Espainiako Estatuko administrazioan.

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioaren eremuan, corpus juridikoan ez da berrikuntza handirik izan, ez bada apirilean Eusko Jaurlaritzak *EAEko Administrazio Orokorren eta hari atxikitako Sektore Publikoaren Hizkuntza Irizpideak* delako dokumentua onartu zuela. Administrazioak herritarrekin duen harremanean euskara bermatzea, eta haien hizkuntza eskubideak bermatzea; helburu horiekin onartu zituen sektore publikoan diharduten langileentzako hizkuntza-irizpideak. Administrazioaren eremu guztietan bi hizkuntza ofizialen erabilera finkatzeko neurriak biltzen ditu dokumentuak.

Halere, izan da ekimen ezkorrik, esaterako, Eusko Legebiltzarreko Kultura, Euskara eta Kirol Batzordean izandako eztabaida Euskalgintzaren Kontseiluak, ELA eta LAB sindikatuekin batera, sustatutako ekimenaren baitan. Euskalgintzak eta gehiengo sindikalak abian jarritako ekimenean eskaera zehatza jasotzen zen: 50 langiletik gorako enpresetan, langileen ordezkariak edo enpresariak eskatuta, euskara-plana negoziatzeko konpromisoa Lanbide-arteko Akordioen bitartez arautzea. Tamalez, urriaren 25ean Batzordeak onartutako Legez Besteko Proposamenak lantokietan euskara sustatzea aipatu arren, ez zion inongo erreferentziarik egiten patronal eta sindikatuen artean hori gauzatzeko marko bat sortzeko egindako proposamenari.

Plangintzaren esparruan, azaroaren 2an Euskararen Agenda Estrategikoa



Berezko hizkuntzen aldeko eragileen eta ordezkari politikoek agerraldia, Madril.

gikoa onartu zuten Gobernu Kontseiluak. Lau helburu nagusi jaso zituen Agendak: herritarren artean euskararen ezagutza handitzen jarraitzea eta, hor barruan, helduen ikaskuntza egitasmoa sendotzea; euskararen erabilera ere handitzen segitzea, hizkuntza-eskubideen bermean aurrera egitea, eta euskararen lurralde guztietan erakundeen arteko lankidetzaz sendotzen jarraitzea. Halaber, Euskara Eredu Digitalean Sustatzeko Bide-orria eta Kirolean Euskara Sustatzeko Plana 2021-2024 aurkeztu dira 2021ean.

Aurrekontuei dagokienez, 2022ko aurrekontuetan azpimarratutako eremuak honako hauek izan dira: eremu sozioekonomikoan euskararen erabilera sustatzeko plana, ingurune digitalean euskara indartzeko bide-orria, Euskaraldiaren hirugarren aldia eta inkesta soziolinguistikoa.

Nafarroan, aldiz, atzerapauso-zantzuak egon dira araudiaren esparruan. Batetik, Espainiako Kongresuak onartutako Legez Besteko Proposamenaren karira, kontuan hartu behar da puntu batek bete-betean jotzen duela Nafarroarekin: *berezko hizkuntzen ofizialtasunerako estatutu-erreformak bultzatzea eta babes ditzala, hizkuntza horiek ofizialak ez badira hitz egiten diren lurraldearen zati batean edo lurralde osoan*. Horrela, maiatzean, Nafarroako Parlamentuan eztabaidagai izan zen aipatu Legez Besteko Proposamena, baina ez zuen aurrera egin. Gobernuan dagoen alderdi nagusienak iritzia aldatu, eta Madrilan agertutako aldeotasuna kontraktasun bihurtu zuen Iruñean.

Bigarrenik, kezkarria izan da Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legea hein batean aldatzeko Nafarroako Parlamentuak urriaren 14an onartutako Foru Legea. Hasiera batean, lege berriaren helburua izapidetzea arintzea, interpretazioak argitzeko betebeharrak zehaztea eta salbuespenak zuzenketa teknikoaren bidez zuzentzea bazen ere, zenbait alderdik aukera baliatu zuten hizkuntza-eskubideen esparruan atzerapausoak emateko. Gogoratu behar dugu 2018ko apirilean onartutako legearen hamabosgarren xedapen gehigarriak jendeari erantzuteko zerbitzuetan euskararen presentzia sustatzeko neurria jaso zuela. Xedapen horren arabera, kontratua betetzeak jendeari erantzuteko zerbitzu bat ematera behartzen duenean, enpresa azpikontratatuak euskara plan bat prestatuko zuten, jendeari erantzuteko lanpostuetan diharduten pertsonak hizkuntza horretan prestatu ahal izateko. Hartara, xedapen hori bertan geratu da. Hortaz, enpresen



Kontseiluaren manifestazioa Nafarroako Gobernuaren jarrera salatzeko, Iruñea.

borondatearen esku geratuko da herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzea. Eta, azpimarratzekoa da, kasu horretan askotan mahai gaineratzen duten zonifikazioari berari ere ez diotela erreparatu.

Hirugarrenik, administrazioan euskararen erabilera arautzeko dekretua ere hizpide izan da urtean zehar. Ekainaren bueltan, Nafarroako Gobernuak dekretu berriaren edukia hedabideetan zabaltzeko ekin zion. Horrela, dekretu berriaren bi ardatz aurreratu zituen: Batetik, legeak ezarritako eremu ez-euskaldunetan, inolako lanpostutan ez dela kontuan hartutako euskararen ezagutza (ingelesaren, frantsesaren eta alemanaren ezagutza, aldiz, bai); bestetik, legeak ezarritako eremu mistoan, jendaurreko lanpostuetan besterik ez dela kontuan hartuko euskararen ezagutza (besteena, ordea, bai). Horrek esan nahi du, beraz, euskaldunon aurkako hizkuntza-politika gogorak garatzen zirenean hartutako neurriek jarraipena izango dutela bestelako gobernuak badago ere. Esan behar dugu, Kontseiluak deituta, uztailaren hasieran ehunka pertsona atera zirela Iruñeko kaleetan Gobernuaren jarrera salatzeko.

Bestalde, plangintzaren esparruan, Euskarabideak Euskararen Bigarren Plan Estrategikoa prestatzeko prozesuari ekin zion. Jendaurrean aurkeztutako azken proposamenari 67 zuzenketa aurkeztu zituzten Kontseiluak eta Behatokiak. Izan ere, kontuan hartuta araubidean aurrerapausoak ematen ez direla, bi erakundeek zazpi urteko iraupena izango duen plangintza anbizioz jokatzeke eskatu zituzten Gobernuari. Nafarroako Gobernuak zuzenketei erantzun zien; hartara, zenbait zuzenketa haien eskumenei edota indarrean dagoen araudiari lotzen ez zitzaizela erantzun zuten. Gainerakoetan, ekar-

pen gehienak osoki edo partzialki onartu eta Planean txertatu direla adierazi zuten. Halere, azken bertsioa irakurrita, Kontseiluak eta Behatokiak zalantzak dituzte ez baitaude bere horretan jasota.

Azkenik, aurrekontuei dagokionez, helduen euskalduntzeak izan du igoera bai eta euskararen sustapenak hedabideetan ere.

Ipar Euskal Herrian, apirilean, Frantziako Asanbleak Bretaniako Paul Molac diputatuak sustatutako Ondarea Babesteari eta Sustatzeari buruzko Legea onartu zuen; aldeko 247 botorekin eta gobernuaren borondatearen kontra. Besteak beste, irakaskuntza arloko hiru neurri ekarri behar zituen legeak: murgiltze-eredua Frantziako Hezkuntza Kodean sartzea, eta hizkuntza gutxituen irakaskuntzaren eskaintza orokortzea. Hizkuntza gutxituetan irakasten duten eskola pribatuak diruztatzea ere indartu behar zuen: eskola elebakarrak dituzten herrietan, bertako haurrak inguruko herri bateko ikastetxe batera joan behar badira, ikastetxe horiek diruztatu beharko dituzte herriko etxeek. Horrez gain, beste arlo batzuetako neurriak ere jaso zituen, seinaleetika publiko elebidunaren arautzea eta estatu zibileko dokumentuetan ñ-a bezalako zeinu diakritikoak idazteko aukera.

Hilabete beranduago, Konstituzio Kontseiluak legea edukiz hustutzeko ebazpena argitaratu zuen. Ebazpen hori hurrengo puntuan aztertuko dugu. Halere, gogora dezagun Gobernuak zenbait ordezkari izaera horretako ebazpen bat atera zedin sutsuki egin zutela lan.

Azkenik, herriko etxeen hizkuntza-politikari dagokionez, gogoratu nahiko genuke Hendaia Herriko Etxeak Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloaren Herriko Etxeetako Garapena aplikatzeko proiektu pilotuari ekin diola, eta bestetik, Hizkuntza Gutxituen Tokiko Ituna onartu zutela 45 herriko etxek.

Azpimarragarriak

Langileen hizkuntza-gaitasuna jomuga

Instituzio edo erakunde publikoen jardunean zerbitzua euskaraz eskaintzea ardatza da, baldin eta herri-tarren eskubideak bermatuko badira. Horrexegatik, Kontseiluak kezka bizi du eremu administratibo desberdinetan gertatzen ari dena, atzera egiteko nolabaiteko inertzia baitago.

Euskal Autonomia Erkidegoan 2021ean ez da onartu, oraindik, administrazio publikoetan euskararen erabilera

arautzeko dekretua, hain zuzen ere, Euskal Autonomia Elkarteko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen 86/1997 Dekretua ordezkatu behar duena.

Jasotako informazioaren arabera, dekretu berriak hizkuntza-eskakizun asimetrikoak txertatuko ditu. Hau da, lanpostuaren profilak behar dituen gaitasunen arabera eskakizunak. Horrela, idazmenean eta mintzamenen gaitasun desberdinak ezar daitezke lanpostuetan. Kontseiluak, berez, egokitzat jotzen du proposamen hori, beti ere atzerapausoak ekarriko ez baditu. Hau da, hizkuntza-eskakizun asimetrikoen aukera euskaraz alfabetatuta ez dauden eta lanbidean idatzizkoa erabili behar ez duten langileei ezarri behar zeie. Izan ere, Kontseiluak kezka bizi du sektore batzuetatik hizkuntza-eskakizun asimetrikoak orokortzeko egon diren proposamenak. Horien aurrean, gogoratu nahi izan dugu ofizialtasunak hizkuntza-eskubidea bi norantzetan aitortzen diola herritarrari. Ondorioz, administrazioari euskaraz zuzentzeko eskubidea izateaz gain, administrazioak herritarrari euskaraz ahoz zein idatziz erantzuteko betebeharra du.

Nafarroan, egoera oso berezia bizi da eremu horretan. 2019ko urrian, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak edukiz hustu zuen Nafarroako administrazioan euskara arautzen duen 103/2017 Foru Dekretua. Euskaingintza-aren Kontseiluak, euskal gehiengo sindikalariekin batera, eskaera egin zion Nafarroako Gobernuari aipatu epaia helegiteko. Orduan adierazi zitzaigun beste bide bat lehenetsi zuela botere legegileak, hain zuzen ere, berme juridikoa izango zuen beste dekretu bat argitaratzea. Orduan ez da inolako dekreturik argitaratu, bai, ordea, ehunka lanposturi eragiten dizkieten lan-deialdiak. Administrazio Euskaraz Taldeak urtean zehar hainbatean salatu du Nafarroako Gobernuak argitaratutako lan-deialdietan euskararen ezagutzari ez zaiola inolako aitortzarik egin, bai, ordea, berezko edo ofizialak ez diren alemanari, ingelesari eta frantsesari. Are gehiago, Kontseiluak berak salatu zuen urrian erizainen 624 lanpostu huts oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdia zabaldu zuela Gobernuak. Legeak ezarritako eremu misto zein ez-euskaldunetako lanpostuetan euskararen ezagutzak ez zuen inolako baliorik, bai, ordea, ofizialak eta berezkoak ez direnena. Tamalez, urtean zehar askoz gehiago izan dira: suhiltzaile kaboetarako 16 plaza, enpresa zientzien diplomaturako 43 lanpostu, edota SOS Nafarroako koordinazio operadore laguntzailerako 20, zeladorerako hainbat plaza...

Hezkuntza: normalizaziorako zutabe


Egoera gutxituan dagoen edozein hizkuntzaren normalizazio-prozesuan hezkuntza zutabea da. Izan ere, hizkuntza gutxituak hiztunak behar ditu, eta hezkuntzatik modu naturalean etor daitezke hizkuntza gutxitua egoki ezagutzen duten belaunaldi berriak. Euskararen kasuan ere, hezkuntzak ekarpena ikaragarria egin izan dio normalizazio-prozesuari. Halere, egia ere bada, oraindik ezagutzaren unibertsalizaziotik urrun gaudela, eta gure hizkuntzaren normalizazioari oztopoak jarri nahi izan dizkietenek ere hezkuntza izaten dutela jomuga haien erasoetan.

Euskal Autonomia Erkidegoan

prozesu garrantzitsuari ekin zaio udazkenean. Eusko Legebiltzarrak 2021eko urriaren 14an egindako osoko bilkuran, egun indarrean dagoen Euskal Eskola Publikoari buruzko 1/1993 Legea aldatzeko prozedurari ekin dio. Hurrengo hamarkadetako hezkuntza-sistemaren oinarriak ezarriko dituen legearen eztabaidari ekin zaio. Gaur egun ikasle askok, derrigorrezko hezkuntza amaitutakoan, ez dituzte beharrezko hizkuntza-gaitasunak eskuratzen. Eta horrek zuzenean eragiten die gizarte kohesioari eta belaunaldi berrien aukera-berdintasunari. Izan ere, gizarte bizitzan zein garapen profesionalean aurrera egiteko hain oinarritzakoak diren hizkuntza-gaitasun egokiak eskuratzea, euskaraz eroso aritzeko gaitasuna eskuratzea, ezinbestekoa da gizarte kohe-sioan eta berdintasunean aurrera egiteko. Horrexegatik, Kontseiluaren ustez orain da momentua hezkuntzan beharrezko jauzia emateko, eta belaunaldi berriei euskara-gaitasun egokia bermatuko dien hezkuntza-sistema indarrean jartzeko.

Berdintasun-printzipioari jarraiki, egoera soziolinguistikoak edota bestelako irizpideek ezin dituzte baldintzatu ikasleek eskuratu beharreko gaitasunak —ez hizkuntzaren arloan, ez eta beste ezagutza arloetan ere—. Aitzitik, herritarren arteko bereizkeria handia da jatorria, eremu soziolinguistikoa, egoera soziala edo bestelako irizpideren bat baliatzea ikasleei euskara-gaitasun egokia eskuratzea ukatzeko.

Horrexegatik, hain zuzen, kontuan hartuta hizkuntza-rena izango dela lege berriak askatzeko izango duen korapilo nagusietako bat, Kontseiluak eragileen arteko adostasuna lortzeko ekin dio. Horren lehen emaitza



Hezkuntzako eragile nagusi, gehiengo sindikal eta Kontseiluaren agerraldia, Gasteiz.

abenduan erakutsi zen Gasteizen egindako agerraldian. Bertan, hezkuntza-komunitateko eragile nagusienak batu ziren: Euskal Herriko Ikastolak, EHIGE, Kristau Eskola, HEIZE, Hik Hasi, ELA, LAB eta STEILAS. Horrela, beste gai batzuetan desadostasunak izan arren, euskararen gaian aldarri bateratua egin zuten: *hezkuntza-hitza armenean berariaz jaso dadila hurrengo legeak ereduaren sistema baztertzaila gainditu eta ikasle guztiei euskara gaitasun egokia bermatuko dien eredu orokortua ezarriko dela.*

Nafarroan, beste urte batez, haur eskolak gatazka-iturri izan dira, Iruñeko Udalak hamarnaka familia euskarazko lerrorik gabe utzi dituelako. Gogorra da Udalak umeei euskaraz heitzeko eskubidea ukatzeko aurrera darman hizkuntza-politika basatia.

Derrigorrezko hezkuntzari dagokionez, esan behar dugu Gobernuak Hezkuntza Departamenduak eusten diola euskarazko irakaskuntzan trabak jartzeko. Hor dugu, esaterako, Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoetan eta pribatu itunduetan ikasleak onartzeko Foru Dekretua. Behatokiak hainbat zuzenketa sartu zuen, besteak beste, familiek aukera izatea nahi duten ikastetxea eta eredu linguistikoa hautatzeko. Izan ere, Behatokiaren arabera, Foru Dekretuak aipatzen dituen berdintasun eta gertutasun printzipioak bete nahi badira, ikastetxe guztietara zabaldu behar da D ereduak; euskaraz ikasi nahi duena ez dadin beste ikastetxe batera joatera behartuta egon. Nafarroako Gobernuak ez zituen eskaera horiek onartu, eta beraz, aipatzen dituen

berdintasun- eta gertutasun-printzipioak ez dira beteko. Bestalde, salatzeko modukoa da Nafarroako Gobernuak hezkuntza kontseilariak izandako jarrera oldarkorra Euskararen Bigarren Plan Estrategikoaren zirriborroak Nafarroako haur guztiei euskara ikasgaia emateko proposamenari erantzunez. Halaber, batxilergo sartzeko araudi berria D ereduaren kalterako izango dela salatu zen. Horrekin batera, ikusi ahal izan da, zenbait ikastetxeri, Castejongoari esaterako, PAI programa utzi ahal izateko jarritako oztopo guztiak. Hartara, Gobernuak oztopoak beti norantza berean jartzen ditu, bai D ereduak lerroak ez zabaltzeko, bai PAI ereduak ez uzteko. Larria, beraz, erabiltzen duen irizpide bikoitza.

Parlamentuari lotzen bagatzaizkio, atzerritarrek euskaraz matrikulatzeko kanpaina abian jartzea baztertu zuen.

Eta, bai, berri onik ere izan da, izan ere, Mendigorriko haurrek D ereduaren matrikulatzeko aukera izango dute herrian bertan. Halere, onartezina da eskubide hori bermakien gurasoek egin behar izan duten lan guztia, bai eta auzitegira jo behar izana ere.

Ipar Euskal Herrian ere positiboki baloratu behar da euskarazko murgiltze-ereduak Seaskaren bidez eginga dako ibilbidea, non urterik urte ikasle gehiago biltzen dituen. Halaber, eskola publikoetan ere herri-gogo indartsua izan da euskarazko murgiltze-eredua eskatzeko, tartean, Idauze Mendiko eskolaren edota Donapaleuko kolegioaren okupazioak.

Ondarea Babesteari eta Sustatzeari buruzko Legeari jarritako helegiteari erantzunez, Konstituzio Kontseiluak kinka larrian jarri zuen murgiltzen bidezko irakaskuntza osoa. Ondoren, Kontseiluak berak argitu zuen Seaskaren murgiltze ereduaren onesten zuela, ez aldiz eremu publikoan; alegia, inkonstituzionaltasuna soilik hezkuntza publikoari dagokiola, ez eragile pribatu, ikastola edo eskola katolikoei. Estatuan mobilizazioen bidez izandako erantzunari aurre egiteko, lehen ministro Jean Castexek berak murgiltze-ereduei bermeak emango zizkiela hitz eman zuen uztailan. Azkenean, abenduaren 16an Frantziako Hezkuntza Ministerioak Eskualdeko Hizkuntzen eta Kulturen Irakaskuntzari Buruzko Zirkularra publikatu zuen aldizkari ofizialean. 2017ko zirkularra ordezkatzeko du, eta hizkuntza gutxituen murgiltze irakaskuntza arautzen du. Frantsesaren eta hizkuntza gutxituen maila bereko ezagutza jarri ditu baldintza gisa, eta ebaluazio osagarriak egingen dituztela iragarri du. Hizkuntzen Kontseilu Nagusia sortuko dute, eta biltzarretako bat hizkuntza gutxituei buruzkoa izanen da. Baxoan ikasgai batzuk euskaraz pasatzeko aukera aipatu du.

Ikus-entzunezkoak

Aurreko atalean esan bezala, Espainiako Gobernuak Ikus-entzunezkoen Lege Orokorren aurreproiektua aurkeztu du urtearen amaieran. Aipatu Legeak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018/1808 (EB) Zuzentarauaren transposizioa egin behar zuen, eta, besteak beste, plataforma digitaletan Europako produktioa sustatzeko neurriak bildu behar zituen. Lege berriak eragin handia izango du ikus-entzunezkoen eremuan, eta, beraz, arretaz aztertu behar izan zen berezko hizkuntzei dagokienez zer-nolako aukerak edo arriskuak jasotzen dituen.

Lehenik eta behin, agerian utzi behar da legearen zirriborroan hizkuntza-aniztasunari berariazko aitortza ez zitzaiola egin. Bestalde, hizkuntzen inguruko kuotak nola ezarri dituen kontuan hartuta, ondorioztatu liteke gurea bezalako hizkuntzen presentzia bermatuta ez egotea. Kontuan hartu behar da, une oro Espainiako Estatuko hizkuntza ofizialetako ekoizpenei ezartzen zaiela kuota, eta horren barruan ez dela inolako bereizketarik egiten. Hartara, gaztelania ere Estatuko hizkuntza dela kontuan hartuta, hizkuntza horretan egitea nahikoa litzateke araudia betetzeko. Horren aurrean, Kontseiluak, Pantailak Euskaraz, Hekimen, Tokikom, Behategia eta Topagunearekin batera, alegazioak sartu zituen. Alegazioen ardatza hizkuntzen arteko berdintasuna bermatzeko eskatzea izan zen, besteak beste, hizkuntza-kuotak ezarri. Halere, Gobernuak ez zituen alegazioak kontuan hartu, eta Kongresura eramango duen lege-proposamena oso urrun dago hizkuntzen arteko berdintasunetik. Horrexegatik, galizieraren, katalanaren eta euskararen aldeko gizarte eragile nagusiek estrategia bateratuari ekin diogu hizkuntza-berdintasuna bermatzeko aldera.

Dena den, kontuan izan dezagun, eremu honetan, herri-gogoaren atalean jasoko dugun bezala, oso garrantzitsua izan dela herri ekimenetik sortutako zenbait dinamika plataforma digitaletan, eta pantailetan oro har, euskarazko edukiak egon daitezen.



Euskara, katalana eta galizieraren aldeko eragileen agerraldia, Madril.

3

**ESKU-HARTZEAK:
BOTERE
JUDIZIALAREN
OLDARRALDIA**

Euskal Herri osoan gertatzen ari da botere judizialaren oldarraldia, eta esan dezakegu joera globala dela. Kontseiluak, katalanaren eta galizieraren alde lan egiten duten adituekin batera, ondorio bat atera izan du azken urteotan izan diren esku-hartzeak oinarritzat hartuta: *botere judizialak epaien bidez ezarri nahi du hizkuntza-politika berria Estatuan; are gehiago, botere judiziala hizkuntza-politika nahierara arautzen hasi da jurisprudentzia baliatuz.*

Gurean ere, gogor jo dute auzitegiek 2021ean. Batetik, hor dugu EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak Irungo Udaltzaingo zerbitzurako 12 lanposturi ezarritako hizkuntza-eskakizunak bertan behera uzteko argitaratutako epaia. Aipatu epaiak derrigorrezko hizkuntza-eskakizunaren aurkako helegitea jaso ondoren, euskara ez dakitenekiko diskriminatzailea dela argudiatu zuen. Epaia larria, zalantzarik gabe, egun Euskal Autonomia Erkidegoan ezarrita dagoen hizkuntza-eskakizunen sistema bera ere auzitan jarri zuelako. Kontseiluak bazkide guztiekin egindako agerraldian gogor salatu zuen epaia. Batetik, epai politikoa dela eta inolako justifikazio juridikorik ez duela salatu zuen, eta bestetik, epaia ezin dela modu isolatuan ulertu adierazi zuen. Aitzitik, azken boladan epaitegietatik hizkuntza-eskubideen urraketak ahalbidetzeko datorren inertiaren barruan kokatu behar zela esan zuen.

Bestetik, EAEko Justizia Auzitegi Nagusi berak 2016an Eusko Legebiltzarrean onartu zen Euskadiko Toki Erakundeei Buruzko Legearen 6.2 artikulua auzitan jarri zuen, Espainiar Konstituzioak ezartzen duen gaztelera libreki erabiltzeko eskubidearen aurkakoa izan daitekeelakoan. Horretan, kontuan izan behar dugu Legeak, honez gero, galbahe juridiko guztiak gaindituak zituela. Hori horrela izanik ere, Auzitegi Konstituzionalak tramitera onartu zuen eskaera, eta, beraz, haren erabakiaren

zain gaude.

Azkenik, gogora dezagun EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak ebatzi gabe duela, zinegotzirik ez duen alderdi politiko batek Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzko 179/2019 Dekretuaren hainbat artikuluri jarritako helegitea.

Gainera, oldarraldi horiei erantsi behar diegu Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiaren jarrera. Hainbat udalek zenbait lanpostutan euskararen ezagutzaren derrigortasuna edota merezimendu bidezko balorazioaren inguruan horiek baliogabetzeko epaiak argitaratu izan ditu Nafarroako Auzitegiak, udalen beren toki-autonomia ere auzitan jarritz. Esan daiteke modu ia sistematikoan ari dela atzera botatzen euskararen derrigorrezko eza-gutza edota merezimendu bidezko balorazioa.

Nola ez, gurean ere eragina izan dezakeelakoan, larritzat jo dugu Auzitegi Gorenak Generalitateak Kataluniako Justizia Auzitegi Nagusiak hainbat ikastetxetako hezkuntza-kurrikulumari buruz argitaratutako epaiei jarritako helegitea onartu ez izana. Izan ere, Kataluniako Auzitegiak kurrikulum-edukietan hizkuntzen ehunekoa zein izan behar den arautzera iritsia da. Hartara, oso larria da auzitegien esku-hartzea hizkuntza-politikaren esparruan.

Ipar Euskal Herriari dagokionez, arestian esan bezala, Konstituzio Kontseiluak gogor jo zuen Frantziako Asanbleak apirilean onartutako legearen aurrean. Asanbleak legea onartu eta bi astera, legea promulgatu behar zenean, 60 diputatu baino gehiagok helegitea ezarri zuten. Helegiteak artikulua bakarraren aurka egin zuen, hain zuzen ere, ikastetxeak diruz laguntzeko betebeharra jarri zuten zalantzan diputatuek. Halere, Konstituzio Kontseiluak beste artikulua batzuk baliogabetu zituen.

Horrela, murgiltze-eredua Frantziako Hezkuntza Kodean sartzea konstituzioaren bigarren artikulua kontrakoa zela ebatzi zuen. Horrekin batera, estatu zibileko dokumentuetan ñ-a eta halako zeinu diakritikoak erabiltzea ez zela posible izanen ezarri zuen. Ondorioz, helegitean beste artikulua bati buruz galdetu arren, gainerako artikulua aztertzea erabaki zen bere baitarik, bai eta egiturazko artikulua baliogabetu ere.



Kontseiluaren elkarretaratzera EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren atarian, Bilbo.

The background of the page is a light blue color with a repeating pattern of stylized, light blue comma shapes. These shapes are scattered across the entire page, creating a subtle, textured effect.

4

HERRI-GOGOA

Plazak betetzen hasi gara

Argazki esanguratsua utzi digu aurten Durangoko Landako guneak. Segurtasun- eta edukiera-neurri zorrotzekin bazen ere, berriz ere ireki da euskarazko kulturaren topagune nazionala. Urtearen amaieran COVID-19aren oldarraldi berriaren atarian izan arren, garrantzitsua izan da komunitateari begira plazak betetzen hastea, berriz ere ikusgarri egitea, berriz ere ikusgarri izatea.

Normaltasun arraroaren barruan ere etorri zen komunitateak espero zuen beste berria: 2022ko martxoaren 31tik apirilaren 10era, Amurriotik Donostiara, Euskal Herria luze-zabalean zeharkatuko duen hogeita bigarren Korrikaren aurkezpena.



Hogeita bigarren Korrikaren aurkezpena., Donostia.

Eta plazak betetzen jarraitu dugu, kalera atera behar izan dugulako. Kanean egon gara, erabaki bidegabeak salatzeko bai eta gure komunitatearen autoafirmaziorako ere. Horrela, ikaragarria izan zen Baionan, maiatzaren 29an Konstituzio Kontseiluak hartutako erabakia arbuiaztzeko bildutako milaka pertsonaren irudia. Izugarria izan zen hezkuntzako eragileen batasuna, norberaren interesak albo batera utzita, kanpo-eskuhartzeari modu bateratuan erantzuteko.

Horrekin batera, eta lehen esan bezala, Kontseiluak bi mobilizazio antolatu ditu euskaldunen hizkuntza-eskubideen aurkako erasoei aurre egiteko. Lehen EAeko Justizia Auzitegi Nagusiaren atarian maiatzaren 22an, bertako aretoak derrigorrezko hizkuntza-eskakizunak baliogabetzeko atera zuen epaia arbuiaztzeko. Bigarrena, Iruñeko kaleetan zehar, uztailaren 2an, Nafarroako Gobernua prestatzen ari den dekretuaren karira hedabideei helarazitako informazioa dela-eta, hizkuntza-eskubideak bermatzeko gutxieneko batzuk adosteko beharra aldarrikatzeko. Azkenik, mobilizazio itxura izan ez bazuen ere, abenduaren 14an, Kontseiluak ekitaldia egin zuen Iruñean Euskararen Legearen 35. urteurrena gogoan.

Eta, bestelako aldarriek ere bete dituzte kaleak: Iruñean euskarazko haur-eskolak eskatzeko hainbat mobilizazio izan dira urtean zehar; Nafarroako Unibertsitate Publikoan hainbat ikaslek itxialdia egin zuten euskaraz ikasteko eskubidea aldarrikatzeko; ikasleek ozen agertu zuten Euskararen Legearekiko desadostasuna abenduaren 15ean Iruñeko kaleetan; Durangon, EHEk deituta, ehunka herritar atera ziren euskararen errepublika aldarrikatzeko, eta abar.

Eta Euskararen Legeak eragiten dituen bidegabakeriak oinarri, azaroaren 13an Cortesetik heldu zitzaigun ekimen baten berri. Euskararen aldeko aldarriei bidea emateko **Hordago!** izena eman diote ekinbideari, eta herrialde osoan eragin nahi dute, hegoaldetik iparraldera eta mendebaldetik ekialdera, hizkuntza-eskubideak ardatz gisa hartuta. Foru komunitateko leku, herri, kontzeju, hiribildu eta hiri guztiak zeharkatuz; hordago horrek lau haizeetara zabalduko du aurrera urratsak egin nahi dituztela, edozein nafarrek, edonon dagoela eta edonon bizi dela, lurralde osoan euskara ezagutu eta erabiltzeko duen eskubidea praktikan jartzea eragozten duten oztopo guztiak kentzeko.

Bestalde, Ikus-entzunezkoen Lege Orokorren atalean aurreratu bezala, 2021ean oso garrantzitsua izan da plataforma digitalek, eta oro har pantailek, euskarazko produktuak bermatzeko abiarazi diren herri ekimenak. Lehenik, Disney Euskaraz ekimena jarri zen abian 2020an. Orduan, hainbat gurasok eta euskaltzalek bi eskaera egin zuten: batetik, Disneyri bere ekoizpenak euskaraz eskaini ditzala bai euskal herriko zinema aretoetan bai Disney+ plataforman, eta utz ziezaiola euskaldunak diskriminatzeari. Bestetik, Eusko Jaurilaritza, Nafarroako Gobernua, eta Euskal Elkargoari, Disneyrekin harremanetan jar daitezela haur euskaldunen eskubideak bermatuak izan daitezela. Ia 6.000 sinadura bildu zuten hilabete gutxian.



Konstituzio Kontseiluaren erabakiaren aurkako manifestazioa, Baiona.



Euskarazko Ikus-entzunezkoen Aldeko Manifestuaren aurkezpena, Durango.

Ondoren, Netflix euskaraz eskatzeko beste ekimen bati ekin zitzaion. Izan ere, Netflix gazteleraz eta ingelesez osaturiko serie eta filmen katalogo batekin atera zen estatutu espainiarreko ikus-entzunezko merkatura, hasiera-hasieratik; merkatu frantziarrera, era bertsuan: serie eta filmak frantsesez eta ingelesez eskainita. Apirilera 10.000 sinadura biltzeko erronka jarri zuten, eta 10.500 inguru lortu zuten. Are gehiago, Euskalgintzako eragile nagusien babesak jaso zuen ekimenak. Halaber, 3.000 Twitz egitasmoak 4.000 sinadura inguru lortu zuten. Azken honek gaur egun modan dagoen Twitch plataforma euskaraz egotea eskatzen du.

Arrakasta hori ikusita, ekimen horiekin guztiekin, bai eta *zinemak euskaraz* izenekoarekin ere, Pantailak Euskaraz izeneko ekimenari ekin zioten hainbat herritarrek. 2021eko abenduaren 4an, Durangon, hamarnaka eragileren babesarekin *Euskarazko Ikus-entzunezkoen Aldeko Manifestua* aurkeztu zuten, hain zuzen ere, ikus-entzunezkoen alorrean euskararen etorkizuna ziurtatzeko neurri zehatzak.

Eta, nola ez, euskal hizkuntza-komunitateak gogor egin du lan euskaraz bizitzeko hitzunik, tresnak eta espazioak sortzen. Irailaren 25ean Kukulaisi euskaltzaleen topagunea federazioa eratu zen, tokian-tokian euskarazko aisialdia lantzen duten egitasmoak artikulatu eta garatzea helburu duen federazioa hain zuzen.

Errigorak abian jarritako Agerraldia dinamika erakutsi du, legea aldekoa ez bada ere, borondatea egonik gauza asko egin daitezkeela. Hartara, txalotzeko moduko ekimenak abian jarri dira Nafarroako hegoaldean, besteak beste, herrietako errotuluak euskaraz ere jartzea, enpresetan euskara planak abian jartzea, futbol-taldea Tuteran, euskarazko ludotekak...

Hor izan dugu, bestalde, *Haurren aurrean, helduok heldu* dinamika haurren zuzeneko heldu erreferenteek, (guraso, hezitzaile, senide, lagun...) beraien arteko, hau da, helduen arteko, hizkuntza-praktikak aldatzeko eta euskara gehiago erabiltzeko aktibazio ekimena.

Azkenik, urteroko bestelako ekimenak eta ekimen berriak ere izan dira, besteak beste, UEUren Udako Ikastaroak, Elhuyar Sariak, Ikastolen aldeko jaiak, euskararen normalizazioaren inguruko hainbat jardunaldi, euskara gazteen artean sustatzeko Damolat proiektua, Elhuyar hiztegiaren 25. urteurrena, Linguattec proiektua, Gaztealdia, Hik Hasiko ikastaroak, Ikergazte, Kutxabira, Herrika, Lansarean, Bai Euskarari ziurtagiria eta beste hainbat ekimen. Hortaz, arestian esan bezala, plazak berreskuratzen ari gara.

Eta izan da, bai, hurrengo urtean izango den beste ekimen garrantzitsu batean aurkezpena. Izan ere, 2022ko azaroaren 18tik abenduaren 2ra izango da hurrengo Euskaraldia: Hitzek ekiteko garaia. Edizio berriaren lehen xehetasunen berri eman zuten eragileek Iruñean azaroaren 20an egindako aurkezpenean.



Hirugarren Euskaraldiaren aurkezpena, Iruñea.

Batuz Aldatu

Hizkuntz Eskubideak Bermatzeko Protokoloaren aurkezpena gogoan, oraingoan ere Kursaal jauregia aukeratu zen dinamikaren lehen agerraldia handia irudikatzeko. Batuz Aldatu izena hartu du Euskalgintzaren Kontseiluak hizkuntza-politikan eragiteko adostasun sozialen ekimenak, eta ekaineko ekitaldia azken hilabeteotan garatutako prozesua eta jauzi berria irudikatzeko baliatu nahi izan zen.

Horrela, ekainaren 19an, Euskal Herri osoko izaera eta eremu askotariko 99 eragilek hizkuntza-politikan jauzia egiteko proposamen adostua aurkeztu genuen. Jauzia egiteko beharra ez ezik, jauzi horrek nora eramane behar gaituen ere adosteko gaitasuna izan genuen eragileok, eta euskararen berreskurapen-prozesuan jomuga berri bat jarri zuten mahai gainean: euskararen erabilera eroso baldintzak bermatzea.

Esan bezala, askotariko eragileok adostu genuen zein

izan beharko duen etorkizuneko hizkuntza-politiken helburuak: erabilera erosoarako espazioak bermatzea. Areago, horra iristeko etorkizuneko hizkuntza-politikek hartu beharko dituzten norabidetzeak adosteko ere gai izan gara. Horrela, etorkizuneko politikek helburu horretara iristeko ezagutzaren unibertsalizaziorantz jotzea eta euskara eroso erabiltzeko eremuak sortu, garatu eta elkarlotzea adostu dugu. Alegia, batetik, euskara-aren ezagutzaren unibertsalizazioa bultzatu beharko da herritar guztiek euskaraz aritzeko gaitasun egokia izan dezaten. Eta, bestetik, euskara eroso erabiltzeko eremuak sortu, garatu eta elkarlotu beharko dira, hala nahi duen edonork ez dezan izan euskara erabiltzeko inolako eragozpenik.

Iruditzen zaigu paradigma berria jarri dugula, edukia-ri dagokionez, mahai gainean. Inora eraman ez, eta askotan erantzukizun osoa euskaldunaren bizkar jartzen duen ezagutza vs. erabilera dikotomia gainditu dugu, eta herritar guztiok ulertzeko moduko helburua adostez gain, horra iristeko bidea marraztu dugu askotariko eragileok. Eta, hori handia da, oso.

Halaber, Kursaa-lean ateratako argazki horrek edukian ez ezik, partaideetan ere berrikuntza handia ekarri zuen. Gizarte osoa zehartzen duen auzia da hizkuntzarena: harremanen oinarria da, eta eremu guztian gertatzen dira modu bateko zein besteko hizkuntza praktikak. Horretaz gain, eragile sozialek, ekonomikoek eta abarrekoek hainbat erabakigunetan hartzen dute parte, eta beraz euskalgintza iristen ez den eremuetan eragiteko aukera dute. Hori dela eta, gizarte-eragileek ere erantzukizunez jokatzeko konpromisoa agertu nahi izan dute dinamika honen bidez. Norbere esparru eta harreman-sareetatik jardunez eta eraginez, denon eskubideak bermatzeko urratsak egin behar ditugulako, hain zuzen.



Eragileetako ordezkariak Batuz Aldaturen aurkezpen-ekitaldian, Donostia.

Finen, hizkuntza-politika erdigunean berriz ere kokatu nahi izan dugu guztiok batera.

Askotariko eragileak ekartzea lortu dugu. Euskalgintza-ko eragileez gain, Euskal Herri osoko eragile sindikalak, elkargoak (abokatuak, sendagileak, ekonomialariak, erizainak, pediatriak...), unibertsitate-eremua, gazte-erakundeak, mugimendu feminista, LGTB mugimendua, eremu kooperatiboa, kirola, aisialdia, enpresak... Hizkuntzaren normalizazio-prozesua puzzle baten gisa irudikatzen badugu, puzzle horretako hainbat pieza elkartu ditugu, gure artean egoki ahokatzeko asmoz. Horrek islatzen du beraz, dinamika honen lehen hitza-ren esanahia BATU.

Halere, eduki batek haratago, aurrera egiteko nahiak batu gintuen ekainaren 19an, aldatzeko nahiak, zinez uste dugulako BATUZ ALDATU ahal izango dugula.



5

ONDORIOAK

Hizkuntza-politikei dagokienez, 2021ak ere azken urteetan errepikatzen ari garen ideia berresteko elementuak erakutsi dituela esan dezakegu. Pandemiak astindu aurretik ere, Euskalgintzaren Kontseiluak esana zuen euskalduntze prozesuak beste fase batera igaro beharra zuela, eta horretarako, hizkuntza-politikak berrikusi eta birpentsatu behar genituela. Bada, krisiak irakatsi digu bide hori inoiz baino beharrezkoagoa dugula. Hartara, berriz ere, jauzia egiteko garaia dela berresten dugu. Alegia, datuek erakusten dute indarrean dauden hizkuntza-politikek bide bat egin dutela, baina jauzi berriak egiteko hizkuntza-politikak eguneratu eta berritu behar direla.

Gainera, ohartuak gara oldarraldiak ere etorri direla eta etorriko direla; botere judizialek eta beste hainbat eremutatik. Horregatik guztiagatik, orain da unea etorkizuneko hizkuntza-politikak sozialki eta politikoki babesteko eta blindatzeko, besteak beste, botere zehatz batzuek inertzia bortitzei jarraitzen dietelako berezko hizkuntza-komunitateen eskubideak gero eta gehiago murrizteko. Hortaz, horiei modu bateratuan egin beharko diegu aurre.

Esan bezala, irakurketa hori duela urte batzuk hasi zen garatzen Kontseilua urteko irakurketaren testuinguruan. Halere, irakurketa egiteaz gain, etorkizuneko bidea zein izan zitekeen marrazten hasiak ginen: hizkuntza-politikak ikuspegi holistikoarekin eta integratzailearekin garatu beharra; administrazioko sail eta maila guztietan eraginez jardun beharra, benetako zeharkakotasunez garatuko diren hizkuntza-politikak abiatzeko beharra; instituzioen eta euskalgintzako eragileen arteko konplizitatez eraikiko den eta hizkuntza-eskubideen bermea ardatz izango duen hizkuntza-politika abian jarri beharra... Eta, horiek guztiak gara zitezen jauzia egitearen ideia hedatzen hasi ginen, harik eta pandemia iritsi arte.

Horrexegatik, hain zuzen ere, 2020ko abenduaren 15ean, Kontseiluak konpromiso zehatza hartu zuen Euskalgintzako eragileen eta eragile sozial, politiko, sindikal eta instituzionalen aurrean: gizarte eragileekin hizkuntza-politikaren inguruko adostasunak eraikitzeke prozesuarekin jarraitzeko konpromisoa. Are gehiago, oinarritzko dokumentua ere aurkeztu genuen eragileen aurrean: *Hizkuntza Politiketan Eragiteko Adostasun Soziala*.

Orduan aurreratu bezala, euskaldun guztientzat euskararen erabilera erosorako baldintzak egongo diren agertokia irudikatu eta eraiki beharra jarri genuen jomugan. Gainera, horretarako, ezinbestean, bi baldintza bete beharko zirela aurreikusi genuen; batetik, euska-



Kontseiluko bazkideak Batuz Aldaturen aurkezpen-ekitaldian, Donostia.

raren ezagutza unibertsalizatu beharko da; eta bestetik, euskara eroso erabiltzeko eremuak edo espazioak sortuz, garatuz eta elkarlotuz joan beharko dira. Horiek dira, hain zuzen, **Batuz Aldatu: hizkuntza-politiketan eragiteko adostasun soziala** delako dinamikaren helburua eta norabidetzeak.

Aurrera egiteko aukera berriak ditugu, beraz, horrenbestetan aipatutako jauzia egiteko, eta hor kokatu nahi dugu Kontseiluaren hurrengo hilabeteetako jarduna. Hartara, lehenik eta behin **Batuz Aldatu dinamikari eragile gehiago atxikitzea** nahi dugu. Horrela, oraindik parte hartzen ez duten eremuetako eragileen atxikimendua eta konpromisoa nahi ditugu. Halere, horri loturik, garrantzitsua da oso herritarrekin ere gure artean lortutako adostasunaren gakoak partekatzea, ahalik eta herritar sektore zabalenera helaraziz eta horien aldeko tasunak lortzeko ahalegina eginez.

Bigarrenik, asmoa dugu bertan jasotako printzipio nagusiak ardatz, **eremuz eremu eta sektorez sektore hizkuntza-politiketan hartu beharreko lehentasunezko neurriak** zehazteko. Horretarako, oso garrantzitsua izango dira sektoreetako eragileen bisioa eta iritzia, bai eta haien konpromisoa ere. Izan ere, nahiko genuke behin lehentasunak definituta, horiek lortzeko dinamika zehatzak abian jartzea. Esan genuen, bai, lan egiteko molde berriei ekin behar diegula. Hortaz, beharrezkoa da gainerako eragileekin aliantza berriak jorratzea eta aliantza horiek estrategia bateratuak sortzeko eraikitzea, guztion artean, batasunetik are eraginkor eragiteko hizkuntza-politiketan. Arloz arlo, puzzle baten piezak baikina, euskararen normalizazio-prozesuaren puzzlearen piezak. Pieza guztiek ondo ahokatzeko lanean, baina aurretik, pieza bakoitza non eta nola jarri behar den definituta.

Hirugarrenik, **adostasun sozial sendoetatik adostasun politikoetara jauzia** egiteko bidea irudikatzen hasi beharko dugu. Hizkuntza baten normalizazio-prozesua soziala eta politikoa da. Hanka sozial sendoa behar du, baina bai eta hanka politiko sendoa ere. Horrexegatik, gure asmoa da adostasun sozial trinko hauek adostasun politiko bihurtzea. Horretarako lan egingo dugu, horretarako lan-ildoak zabalduko dugu eragile politikoen artean ere adostasuna lortzeko. Dinamikaren izenak dioen bezala, hizkuntza-politiketan eragitea helburu duen dinamika batez ari gara, eta beraz horretan eragingo badugu nahitaezkoa dugu alderdi politikoekin ere bide bati ekitea, zertarako eta eragileok erdietsi ditugun adostasun horietan haiek ere parte aktibo bihurtzeko. Eta, badakigu ez dela bide erraza izango, baina asmatu behar dugu adostasun horiek eraikitzen, horrek ekarriko baitu benetako jauzia euskararen normalizazio-prozesuan.

Halere, dinamika orokorraren erronkak horiek izan arren, badira **eskuartean lehentasunez jorratu beharreko eremuak**, eta horiek ere garrantzia hartuko dute ondoko hilabeteetako jardunean. Arestian esan bezala,

administrazio publikoetan eragin behar dugu. Beharrezkoa da, behingoz, euskaldunon hizkuntza-eskubideak osoki bermatuko dituzten administrazioak izatea, eta beraz, eremu horretan lehentasunak identifikatu eta bidea zehazteaz gain, eragiteko dinamikak ere abian jarriko ditugu eragileekin elkarlanean.

Bigarrenik, **eremu sozioekonomikoan** ere eragiten jarraitu beharko dugu. Egia da, bai, bide horretan lanketa berezituak egin dituela Kontseiluak gehiengo sindikalarekin batera, Batuz Aldatu dinamikaren filosofia baliatuz. Hartara, 2022an ere eremu sozioekonomikoan urrats berriak egin daitezten eragiteko dinamikak garatzen jarraituko dugu.

Azkenik, nola ez, hor dugu **hezkuntzaren esparrua**. Euskal Herri osoari lotutako dinamikak garatu beharko dira, baina zalantzarik ez, Euskal Autonomia Erkidegoan erronka ikaragarria dugu eskuartean, zertarako eta hezkuntza-hitzarmenak edota hezkuntza-lege berriak berariaz jaso dezaten murgiltze- eta mantentze-eredua ardatz duen ikasteredu orokortua. Lanketari ekin dio Kontseiluak 2021ean, baina adostasun sozial

*euskaraz hezi
berdintasunean hazi*



are zabalagoa jorratzeko asmoa dugu hizkuntzaren korapiloa askatzen lagun diezaiegun alderdi politikoei. Gainera, beharrezkoa bada, olatu soziala ere sortzeko asmoa badu Kontseiluak. Une historikoa bizi dugu Euskal Autonomia Erkidegoan hezkuntzari dagokionez eta ezin da aukera galdu. Halere, esan bezala, Ipar Euskal Herrian eta Nafarroan gertatzen den horretan ere begirada jarriaz, noski.

laz, eragileen aurrean hartutako konpromisoa bete du Euskalgintzaren Kontseiluak. Horren emaitza ekainean irudikatu genuen ehun eragilerekin Donostiako Kursaal jauregian. Horrela, gai izan ginen askotariko eragileekin etorkizuneko hizkuntza-politiketako norabidetzeak adosteko. Hortaz, orduko indar hori baliatu behar dugu behar bezala eragiteko, eta hor jarriko dugu indarra hurrengo hilabeteetan. Ziklo berri baten hasiera irudikatu du Kontseiluak: lan egiteko modu berri baten hasiera. Izan ere, bide berri bati ekiteko ordua da. Urratsez urrats, baina etenik gabe. Norabide horretan urratsak egiten hasiak gara. Bat eginez. Elkarrekin eraginez: Batuz Aldatu.



EUSKALGINTZAREN
KONTSEILUA



@kontseilua



@EuskalgintzarenKontseilua



@kontseilua

www.kontseilua.eus